Familia osatu dugu

Oihana Ibarguren
Adopzio bidezko ama 2017tik
Alaben jatorria, Estatu barruko adopzioa

Kaixo politak:

Hemen naiz, berriro ere, etxean behin eta berriro modu goxoan zuei kontatzen dizuegun istorioa kontatzeko asmoz. Polita iruditzen zait 25. urteurrena dela eta, Ume Alaiak familioi gure esperientziak kontatzeko eskaini digun aukera. Beraz, gure bizipena konpartitu dugu liburua eskuetan hartuko duen edonork irakur dezan. Izan ere, iruditzen zait baliagarria izango zaizuela beste familiei ere errealitate honen berri izatea.

Aitatxok eta nik familia handitu nahi genuen, eta biologikoki ezin izan genuen gure ametsa bete. Beraz, adopzioaren munduan murgildu ginen. Gure inguruan arrotza zen gaia, baina informazio bilketan buru-belarri hasi ginen; telefono deiak izan genituen, formakuntza saioak, dokumentu bilaketa… Etorkizuna irudikatu nahian jardun genuen, ezjakintasun eta urduritasunetik.

Bost urteko itxaronaldiaren ondoren, bat-batean telefono dei bat izan genuen Donostiara hurbiltzeko esanez: proposamen bat zuten guretzat. Aitatxo eta amatxo, urduri eta pozez egon ginen bi eguneko itxaronaldi horretan: proposamen horren inguruan ametsetan ibili ginen.

Bost urteko itxaronaldiaren ondoren, bat-batean telefono dei bat izan genuen Donostiara hurbiltzeko esanez: proposamen bat zuten guretzat

Oroimenean bizi-bizi dugu goiz hura; inpresio ona eman nahian, dotore asko iritsi ginen Intxaurrondo aldera. Urduritasunaren urduritasunez uste dut aitatxok eta biok ez genuela hitz bakar bat ere egin bidaia osoan.

Foru Aldundiko gizarte langilearekin bildu eta zuen berri eman zigun. Bi ahizpa zineten, eta familia baten zain zeundeten. Lurralde ezberdinetan bizi zineten, eta aurrez aurre elkarrekin inoiz egon gabeak zineten. Gure erronka izan behar zuen zuek biek elkar ezagutzea, eta denok batera familia bat osatzea. Hau esan ondoren, gizarte langileak bakarrik utzi gintuen eta mahai gainean 5-6 argazki zituen gutunazal bat utzi zuen.

Elkarrekin ireki genuen eskutitza, irrikaz. Eta zuen aurpegiak lehenengo aldiz ikusi genituen.

Zoragarriak zineten.

Ez genuen zalantzarik izan, zuen guraso izango ginen. Ondoren azaldu ziguten nolakoa izango zen zuek ezagutzeko prozesua.

Lina, zu izan zinen gurekin elkartzen lehena; bi urte eta bi hilabete zenituen. Behin baino gehiagotan kontatu dizuegun arren, guretzat Beasaingo kuadrillen eguna garrantzitsua izaten da. Eta 2017koa are eta gehiago: izan ere, zu ezagutu zintugun. Han genituen familiakoak urduri, gure deiaren zain, lehen bisita hori nola joan ote zen jakiteko irrikan. Dakizun moduan, harrera familia batean zeunden sei hilabete bete zenituenetik, jada bertakoa zinen, eta asko maite zintuzten. Tinbrea jo eta atea zabaldu zenuen arren, lotsatuta ezkutatu zinen –ez gintuzun ezagutzen, arrotzak ginen zuretzat–. Sofan esertzeko gonbita egin eta pixkanaka hurbiltzen hasi zinen, lotsaz. Opariak genituen zuretzat eta pozarren hartu zenituen. Une berezia izan zen oso, gustura egon ginen, baina agur esan behar genizun. Prozesua ongi egin behar genuen –zuretzat ere ez zen erraza: hainbeste une, bizipen eta ikasketa egin zenituen familia horri ere agur esatea, eta gu onartzea–.

Harrera familia

Harrera familiaren laguntza txalogarria izan zen prozesu horretan. Zuk ere asko erraztu zenigun bidea. Oso alaia eta hiztuna zinen, nahiz eta gazteleraz hitz egiten zenuen. Bi hilabeteren ondoren, gure etxera etorri zinen lehenengo aldiz; handik aurrera, etxe hura zurea ere izango zen.

Hurrengo erronka zen maletak prestatu eta bidaia luze bati ekitea, Katalunia aldera jo behar genuen hirurok, zure ahizpa ezagutzera. Autoak ez zuen aire egokiturik eta zure osabari berea eskaintzea bururatu zitzaion; han joan ginen fresko eta gustura hirurok, eguzkiaren goxotasuna leihotik sartuz. Bazirudien prozesua berriro hastera gindoazela, urduri geunden.

Sara, zu ere harrera familia batean zeunden, guretzat ezezaguna zen herri batean. Hotelean bazekiten zertara gindoazen; zuretzat ere, Sara, sehaska bat prestatu zuten. Etxean bezala sentitu ginen. Hiriburura joan behar izan genuen, Bartzelonara, eta bertan, jostailuz betetako gela batean egin genuen lehengo bisita. Bertan ezagutu zintugun.

Gogoan dut mahaiaren azpian nola ibiltzen zinen lau hankatan, Linari ihes eginez. Urtebete egin berria zinen. Zuretzat ere opariak genituen prestatuta eta, noski, Linak eman zizkizun. Berriro hotelera bueltatu ginen, zu gabe. Eta Linarekin egin genuen bezala, profesionalek proposatutako egutegia errespetatuz, zu bizi zinen etxearen inguruan elkartzen hasi ginen apurka. Zurekin ere erraza izan zen, bizipen politak ditugu gogoan: esaterako, lehen aldiz zure ahizpak txipiak eman zizkizun probatzeko. “Mmmmm…” batez erantzuten zenion, gustatu zitzaizun seinale. Polita izan zen.

Etxera itzultzeko unea iritsi zen; oraingo honetan lau ginen. Maletak bildu berriro eta hotelaren kanpoko aldean agur goxoa esan zenion harrera familiari, ordurarte zure sostengu izan zen familiari.

Autoa arrankatu eta zuen arteko hitzik gabeko harremana sortzen hasi zineten: irribarreak, keinuak, esku-jokoak eta abar. Gu ere isilik eta pozik bueltatu ginen zuei begira, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen abesti alaiak eta mezuz beteak entzuten. Herrira iritsi eta hor hasi ginen familia gisa bizipenak sortzen: pozak, mugak, erronkak, jolasak, egunerokotasuna. Oraindik txikiak zineten eta bikiak bazinate bezala ibiltzen zineten kalean.

Denek zuten esateko zerbait gu begiratutakoan; izan ere, irribarretsu joaten zineten. Hainbestetan amestutakoa bizitzen ari ginen aitatxo eta

amatxo. Gurekin hasi zineten euskaraz hitzak ikasten, idazten eta irakurtzen. Lina, zuk gazteleraz hitz egiten bazenuen ere, Sara ere ari zen bere modura adierazten, *gatin-gatin* esanez katalanez. Lina, zu pedalik gabeko bizikletan ibiltzen ikasten ari zinen bitartean, Sara, zuk, lehen pausoak eman zenituen zure aitona Bittorren ondoan. Aitona Markos eta amona Doloresekin gure etxean ohikoak diren janariak probatzen hasi zineten. Eta egun ere goxo jaten dugu haien etxean.

Asko erakutsi diguzue, eta uneoro prestatzen gabiltza, izan ditzakezuen zalantza eta kezken aurrean ahalik eta erantzun egokienak eskaintzeko asmoz

Gure bizitzan zehar jende gehiago ere sartzen joan da, eta garrantzitsuak izan zaizkizue bizitzako hainbat etapatan, esaterako, izeba eta lehengusuak. Ume Alaia elkarteko kideek ere beren tokia izan dute. Guretzat garrantzitsua izan da zuen egoera berean dauden haur eta gaztetxoekin momentuak partekatzea. Zuek zuen errealitatea hobeto ezagutzeko lagungarria izan da eta, modu horretan, zuen identitatea sortzen joateko baliagarria izango zaizue. Guretzat ere, guraso moduan, onuragarria izan da bertako familiekin elkartu eta esperientziak trukatzea, izan ere, modu horretan ulertuak sentitzen gara eta zuen beharrak hobeto ulertu ditzakegu.

Hasieran aipatu bezala, gure erronketako bat izan zen zuek elkar ezagutzea eta zuen artean ahizpa harreman hori sortzea eta estutzea. Horretan dihardugu ezagutu zineten lehen egunetik, eta horretan jarraituko dugu.

Guraso moduan ere, asko ikasten ari gara. Asko erakutsi diguzue, eta uneoro prestatzen gabiltza, izan ditzakezuen zalantza eta kezken aurrean ahalik eta erantzun egokienak eskaintzeko asmoz. Zuen identitatearen osaeran ere hemen egongo gara, zuen istorioa ezagutu eta ulertzeko bidelagun izaten.

Asko maite zaituztegu.